

---

## **Emakunderen egoitza okupatu dugu, soldata arrakala arazo politikoa dela salatzeko**

Emakunderen egoitzan elkartu gara, Gasteizen, Gizon eta Emakumeen Soldata berdintasunaren aldeko Egunaren bezperan, idatzi bat erregistratzeko. Hain zuzen ere, "Soldata arrakala ez da kopuru bat, arazo politikoa da" lelopean mobilizatu gara. Ondoren, Emakunderen egoitza okupatu eta batzar bat egin dugu bertan, gure aldarrikapenak ikustarazteko: soldata arrakala sistemak erabiltzen duen tresna baita, gure lanei balioa kentzeko, lan horiek doan eskuratzeko, gutxiago ordaintzeko, jardunaldi partzialak eta aldi baterako kontratuak inposatzeko eta zaintza lanak egitera behartzeko. Era berean, Iruñean, Nafarroako Parlamentuaren aurrean egin dugu protesta. Kasu honetan, Nafarroako Berdintasunerako Institutuari zuzendu gatzaio.

[Gehiago irakurri ->](#)